

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernua Europako Hizkuntzen Egunera batu da lehendabizikoz, hizkuntza aniztasunaren jardunaldi bat antolatuz

Ollo kontseilariak Europako hizkuntz aniztasunaren baitan, etorkizuneko hizkuntza moduan nabarmendu du euskara

Asteartea, 2018.eko irailak 25

Nafarroako Gobernua lehendabiziko aldiz izan da Bruselan Europako Hizkuntzen Egunaren ospakizun ekitaldian. Bertan, Eskualdeetako Batzordean, eleaniztasun eta eremu urriko hizkuntzen gaineko jardunaldi bat antolatu du. Ekitaldiaren irekieran, Ana Ollo Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak hartu du parte, Alianza Europea taldeko lehendakari Karl Vanlouwe eta, Europako Eskualdeetako Hizkuntza edo Eremu Urriko hizkuntzen gutun europearreko kide den Vesna Crnic-Groticekin batera.



Bere hitzaldian, Ana Ollo kontseilariak, Europako hizkuntza aniztasunari euskarak egiten dion banako ekarpena azpimarratu du, “berezko ezaugarriak izanik inguruko hizkuntzetatik bereizten duen hizkuntza aurre-indoeuropearra baita”. Navarrorum erakusketak, “Nafarroan euskarak bi mila urteko historian utzi duen lekukotzaren ibilbidea jasotzen du”, gaineratu du.

Halaber, “euskara eguneko eta etorkizuneko hizkuntza da”, adierazi du, “Nafarroako lau gazteetarik batek hitz egiten du euskaraz, eta datu horrek esperantzarako izpia isladatzen du. Gainera, kultura digitalean eta teknologia berrietan, zein hedabideetan nahiz unibertsitatean ezagutza eta ikerketetan guztiz txertatutako hizkuntza da”, aipatu du. Hala, azaroa hasieran, euskarazko kultura digitala sustatzeko asmoz, Euskarabideak antolatutako [Sarean Euskaraz](#) jardunaldiak aipatu ditu. “Hizkuntza honek etorkizuna izango du, informazioa helarazteko euskarri berrietan present baldin badago eta baita aro digitalean jaiotako gazteen arteko komunikazioan eta aisialdian baldin badago”, gehitu du.

Lehendabiziko panelean, non aniztasuna Europa eta batasunari balioa ematen dion ezaugarri moduan jasotzen den, europearren artean hizkuntz aniztasunak batasunerako duen balioa azpimarratu da. Bertan eskualde eta herrilaide ezberdinetako adibideak eman dira ezagutzera, Fassa Valley (Italia), Valentzia edota Irlandako kasuak aipatuz, non eremu

urriko hizkuntzak hizkuntza ofizialekin batera bizi diren, aniztasun hori kultura zein gizarte balio moduan hartzen duen gizarte batean.

Bigarren panelak, eremu urriko hizkuntzak Europar Batasunean promozionatzeko eskualdeen artean egindako lana izan du aipagai. Bertan, Mikel Irujo, Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak, eremu urriko hizkuntzen promoziorako izandako elkarlanaren hiru adibide azaldu ditu. Horien artean, Mathieu Bergé, Akitania Berriko ordezkariak, Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa Euroeskualdeko, [Eskola Futura](#) proiektua aipatu du. Egitasmo honen baitan mugaren bi aldeetako magisteritzako 40 ikaslek hiru hizkuntzetan gaitasunak eskuratzeko aukera dute: frantsesa, euskara eta okzitaniara.



Hitzaldiaren uneetariko bat.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko “Hiruko Ituna” elkarlanerako hitzarmena aipatu da. 2017an sinatu eta 2018an berritu zen hitzarmen honi esker hiru herrialdeetako erakundeek hizkuntza politiken arloan elkarlanean ari dira.